



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO ERAKUSKETA ARETOAK “BOOGITY SHU” AURKEZTUKO DAU, INTZA ARAKISTAIN LOPETEGIREN ETA SARA AYESA RUIZEN LANAKAZ

- Erakusketea Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Leioako Arte Ederren Fakultadeak EHUren Bizkaiko campusean trebatutako artistei bultzada bat emoteko sinatutako hitzarmenaren barruan dago.
- Maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik Bizkaiko Batzarretako Erakusketa Aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – Beheko solairua. Bilbo), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura.

(Bilbon, 2021eko maiatzaren 4an). Maiatzean zehar Intza Arakistain Lopetegi eta Sara Ayesa Ruiz artisten “Boogity shu” erakusketea zabalik egongo da Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan. Erakusketak EHUKo Arte Ederren Fakultadeko Pintura Masterrean egindako lana islatzen daben hamabost margolan batzen ditu.

Erakusketaren aurkezpenean azaldu dabenez, aukeratutako izenburua, beste persona batenganako maitasuna adierazteko “Boogity shu”, “Ramalama din don” eta “Dip dirip” moduko berbak erabilten dituan Barry Mannen “Who put the bomb” abestitik atera dabe, *“antza ohiko berbak ez diralako nahiko”*. Adierazteko modu *“dibertigarri eta zoragarri”* hori, erakusketan Isabel Calderón gidoilariak bikotekide ohiari *“amorrua eta gorrotoa umorean oinarrituta adierazoz”* deitzeko daukan moduagaz kontrajarten da. Adierazoteko bi modu horreek pinturagaz lotuz, Arakistain eta Ayesa euren deseolari forma emoten saiatu dira *“modu propio eta berezian, egiteko modu barriak etenbarik bilatuz”* eta *“existiduten danagaz batzuetan ez dogulako lortzen transmitidu gura dogun horretara behar beste hurbiltzea”*.

Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, artistakaz, Damaris Pan EHUKo irakasleagaz eta Mahaiko kideakaz batera, adierazo dau *“ohorea”* dala *“euskal artisten belaunaldi barrien sorkuntza-lanak zabaltzea”* eta *“talentu handiko”* gazteen karreraren hastapenaren parte izatea. Oraingoan, Intza Arakistainek eta Sara Ayesak *“kolore askoko”* koktela eskaintzen deuskue, *“deseotik jaiotzen dan”* erakusketa moltsoa, hain zuzen be.

Erakusketea Bizkaiko Batzarrek EHUKo Arte Ederren Fakultadeagaz orain hamarkada batetik daukan akordioaren parte da, Bizkaian trebatutako talentu gazteen lana erakusteko. Batzar Nagusiek uriaren erdigunean daukien



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

erakusketa aretoa lagatzen dabe, lana Bizkaiko ikusleengana errazago gerturatzeko. “Boogity shu” erakusketea maiatzaren 28ra arte egongo da zabalik Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan (Hurtado Amezaga kalea, 6 – Beheko solairua. Bilbo), 08:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura. Sarrera librea izango da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA SALA DE EXPOSICIONES DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PRESENTA “BOOGITY SHU”, CON OBRAS DE INTZA ARAKISTAIN LOPETEGI y SARA AYESA RUIZ

- La muestra se enmarca en el convenio que mantienen la Cámara foral vizcaína y la Facultad de Bellas Artes de Leioa para dar un empujón a artistas formadas en el campus de Bizkaia de la EHU/UPV.
- Permanecerá abierta hasta el 28 de mayo en la céntrica Sala de Exposiciones de la Cámara vizcaína (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes.

(Bilbao, a 4 de mayo de 2021). Durante todo este mes de mayo permanecerá abierta la exposición “Boogity shu” de los artistas Intza Arakistain Lopetegi y Sara Ayesa Ruiz en la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia. La muestra reúne una quincena de obras pictóricas que reflejan el trabajo realizado durante el Master en Pintura de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU.

Según han explicado en la presentación de la muestra, el título elegido lo han extraído de la canción “Who put the bomb” de Barry Mann, quien utiliza palabras como “Boogity shu”, “ramalama din don” y “dip dirip” para declarar su amor por otra persona, ya que *“las palabras convencionales no parecen ser suficientes”*. Esta forma *“divertida y maravillosa”* de expresarse, se confronta en la muestra con la manera en que la guionista Isabel Calderón, inventa maneras de llamar a su expareja *“expresando su rabia y odio hacia él desde el humor”*. Poniendo en relación ambos modos de expresión con la pintura, Arakistain y Ayesa han intentado *dar* forma a su deseo *“de manera propia y singular, en una continua búsqueda de nuevas formas de hacer”* y *“porque con lo que existe a veces no conseguimos acercarnos tanto a lo que queremos transmitir”*.

La Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, acompañada por las propias artistas, además de la profesora de la UPV Damaris Pan e integrantes de la Mesa, ha expresado el *“honor”* que supone *“difundir las creaciones de las nuevas generaciones de artistas vascas”* y ser parte de los inicios de carreras de jóvenes *“con gran talento”*. En esta ocasión, Intza Arakistain y Sara Ayesa nos ofrecen un cóctel de *“gran colorido”*, un



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

conjunto expositivo “*que nace desde el deseo*” ha destacado.

La muestra forma parte del acuerdo que el Parlamento de Bizkaia mantiene desde hace una década con la Facultad de Bellas Artes de la EHU/UPV para mostrar el trabajo de jóvenes talentos formados en Bizkaia. Las Juntas Generales ceden su céntrica sala de exposiciones como forma para facilitar el acceso a su trabajo al público vizcaíno. La exposición “Boogity shu” permanecerá abierta hasta el 28 de mayo en la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja. Bilbao), en horario de 08:00 a 20:00 horas, de lunes a viernes. La entrada es libre.